MONDRAGON UNIBERTSITATEAK IKERKETAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DU

Posted on 01/04/2015 by Naider

Mondragon Unibertsitatearen ikerketa erreferentzia bihurtuko da nazioartean, goi- teknologiako Europako lau proiektuetan parte hartuko dute.Orain onarturiko eta 36 hiletan zehar garatuko diren proiektuek 50 milioi euroko aurrekontua dute.Unibertsitateak sendotu egingo du bere ikerketa hainbat alorretan, hala nola Energian, 4.0 Industrial eta Fabrikazio aurreratuan. Horiek estrategikoak dira eta sektore bereziak europar eta euskal estrategikoak dira, RIS-3 delakoaren barruan daude kokatuta.

1. MANTIS proiektuaren buru MONDRAGON UNIBERTSITATEA dago. 47 bazkide dituen –8 estatukoak: EPS-MU, Ikerlan, Tekniker Fundazioa, Fagor Arrasate, Acciona,MSI, Goizper eta Mondragon– europar proiektua da. Proiektuak 30 milioi euroko aurrekontua du eta orain arte unibertsitateak jaso duen diru-zenbateko handien da. 4.0 Industriaren alorreko proiektua da, eta hodeian industria-alorreko mantentze-zerbitzuen plataforma bat diseinatzea eta garatzea da helburu, non sentsoreek edo sistema txertatuek prozesuak monitorizatuko dituzte.

2. OPTEMUS europar proiektuaren ibilgailu elektrikoen autonomia %50 handitzea da. Mondragon unibertsitateak beste 13 kiderekin parte hartzen du, Virtual Vehicle proiektuaren buru izanik. FIATek parte hartzen du FIAT 500 bat jarriko du proiektuaren eskuetan hainbat teknologia ezartzeko eta lortutako emaitzak dira beste ibilgailu elektroniko batzuetara pasatuko. Estatu mailan Mondragon Unibertsitatea eta Stirling Zentroak parte hartzen dute eta 6, 4 milioi euroko aurrekontua du.

3. MMTech proiektuak Europako 13 bazkide ditu, horien artean Mondragon Unibertsitatea eta Ideco aurkitzen direlarik status mailan. Proiektua 4.0 Industriaren kokaturik dago eta material berriak helburu. 5.7 milioi euroko aurrekontua izango da proiektu hau aurten hasiko da eta 2018. urte-arte iraungo du.

4. EU-LIVE (Efficient Urban Light Vehicles) proiektuak, hirian ibilgailu elektrikoak helburu ditu, 20 ZP-tik beherako potentzia duten ibilgailuak, hala nola motozikletak, scooterrak, trizikloak eta hirirako auto txikiak. Proiektuaren buru Virtual Vehicle eta automobilgintzako bi fabrikatzaile handi dira: PSA< /a> eta Peugeot. Partzuergoa Europako 15 parte-hartzailek osatzen dute eta estatuko bazkide bakarra Mondragon Unibertsitatea da. Eginak 8 milioi euroko aurrekontua du.

There are no comments yet.